

Kultura >

## Baratzeak ematen duena

Prekaritatetik ihesi irtenbidea ortuan bilatzen duen pertsonaia baten istorioa azaldu du Mattinek 'Zarrakamalda' komiki liburuan. Marrazkilariaren lehen lan luzea da



Iñaki Martiarena *Mattin*, atzo, komikiaren aurkezpenean. Atzean, Iñabel Agirresarobe. JUAN CARLOS RUIZ / ARGAZKI PRESS

2016-09-29 / Ander Perez ([http://www.berria.eus/egilea/ander\\_perez](http://www.berria.eus/egilea/ander_perez))

**E**z du izena gaizki jarria Lokatzak, Iñaki Martiarena *Mattin* marrazkilariak (Donostia, 1967) argitaratu berri duen *Zarrakamalda* (Txalaparta) komikiko protagonistak.

Lokatzetan bizi da aspaldion Lokatza, langabezia eta laguntza sistemen ankerkeriaren menpe, bazterketaren muga igarota, eta bakarrik. Eta horregatik otu zaio, irtenbide gisara, lursail bat okupatu eta baratze bat egitea, inoren menpe bizi behar ez izateko. «Itxuraz, nekazaritzari buruzko istorio bat izan zitekeen, eta da. *Ekomiki* bat da, genero gisara», dio autoreak. Baina bada hori baino gehiago ere: «Horren azpian beste gai batzuk ere lantzen ditu; betiere, umore ona eta ziria erabilia. Alegia, irakurterraza da irakurlearentzat, baina badu sakontasun bat ere. Ez genuen nahi arinkeria bat egin, eta uste dut lortu dugula». Atzo aurkeztu zuen Mattinek liburua. Donostian, Iñabel

«ugua». Atzo aurkeztu zuen Mattinek idurua, Donostian, Ixabel Agirresarobe aktorea —obran oinarritutako esketx bat egin zuen— eta Mikel Soto Txalapartako editorea ondoan zituela.

Denbora eman du Mattinek proiektuan, eta onartu du «bizipenetan oinarritutako lan bat» dela orain kaleratutakoa. Haren hitzetan, «prekaritate ekonomikoak eta prekaritate emozionalak bat egiten dute» Lokatza pertsonaiarengan, eta horregatik bilatzen du irteera ortuan, itotzen duen hiritik —Porlandia— aparte. Bada, ordea, elikadura bermatzetik haragoko xederik, sakonago, lurpean: «Errotu behar bat dago. Lokatzak berak esaten du momentu batean: 'Errotu, edo bestela erotu'. Burura, edo bihotzera, etorri zitzaidan esaldi hura, eta uste dut hor dagoela koxka, sustraitu behar horretan. Denok behar dugu helduleku bat». Baratzeak ematen dituelako zerbak, tomateak eta letxugak, bai, baina baita zerbait gehiago ere. Eta hori islatu nahi izan du Mattinek. Finean, «bazterreko ahots» bat da Lokatzarena, autorearen ustez, eta «bazterretik idatzitako istorioa» da harena. «Horregatik du xarma eta zintzotasuna».

Marraskilariak badaki «puri-purian» dagoen gai bat dela baratzeena. Izan iraupen ekonomikoaren bila, izan elikadura burujabetzaren alde, edo izan moda hutsagatik, baratze kulturaren berreskuratze moduko bat du egunotan euskal gizarteak. Neurri batean, joera horretan bere alea jarri du Mattinek, eta, zeharka bada ere, esplikatatu ditu baratzeiko produktuak, lanabesak eta teknikak. Argi du, halere, ez duela «nekazaritzari buruzko doktore tesi bat» egin nahi izan: «Ez nuen irakurlea informazio uholde batekin ito nahi, eta uste dut lortu dudala oreka bat: informazioa ematen dut, baina ez dut itotzen. Liburu irakurterraza da».

## **Autoafirmazio ariketa**

Trazu soil eta xumeez egindako binetez jositako ia 300 orrietan, prekaritatea eta miseria, ahalegina, esperantza eta harremanak nahasten dira etengabe. Txalaparta argitaletxeak ohar batean dioenez, «izerdia, amorrua eta garagardoa» darie liburuko orriei. Tonu eta hizkera garratza eta ziriz betea darabil ahotan protagonistak, eta bata bestearen atzetik kateatzen dira hitz-jokoak. Horietaz galdetuta, beste hitz-joko batekin erantzun du autoreak: «Arkatzak mina dauka, eta istorio hau egiteko mina ere eduki dut. Uste dut umorea mina gaintzeko eta goxatzeko kontua dela». Horregatik, hitz-jokoak, hitzen esanahiak eraldatu eta horiekin jostatzeko trikimailuak «plazera» dira autorearentzat.

Zuri-beltzez egin ditu marrazkiak Mattinek, eta badu horretarako arrazoirik. Batetik, komikigileak uste du bere «jatorrira itzuli» dela; fanzineetara, alegia. «Eta egia da istorioaren tonuak ere bat egiten duela zuri-beltzarekin. Eroso nago horrekin». Hala ondu du bere lehen komiki luzea, umore grafikoan, ilustrazioan eta komikigintzan egindako ibilbide luzearen ostean. Eta onartu du bazuela horretarako grina: «Banuen gogoa nire buruari opari hau egiteko, nire barrenei entzunda halako lan luze eta sakonago bat egiteko. Badago ahalegin bat nire ahots propioa adierazteko, eta, beharbada, autoafirmatzeko ere bai». Eta, gainera, Txalapartaren edizioarekin ere «oso gustura» geratu da.

Gainera, bada bestelako ahaleginik Mattinen obran, ofizioaren defentsarekin lotuagoa, eta aldarri kutsua duena: «Komikiak dauzkan aurreiritziak gaintzen saiatu naiz, irakurleak berak ikus dezan komikia egon badagoela, helduentzako komikia badagoela, euskaraz ondo idatzia

eta gaur egun puri-purian dagoen gai bati buruz eginikoa». Kasu honetan, baratzeak hori ere eman baitezake.



Welcome to Disqus!  
Discover more great discussions just like this one. We're a lot more than comments.



Dismiss ✕

0 Iruzkin

Berria

1 aaa ▾

♥ Recommend

🔗 Partekatu

Berrietik hasita ▾



Start the discussion...

Berria.eus - Euskal Editorea S.L.

Telefonoa: 943 304 030 • Faxe: 943 590 172

Helbide elektronikoak: Webgunea: webgunea@berria.eus | Publizitatea: publi@bidera.eu

Harpidetza: harpidetza@berria.eus

Lege Informazioa

(<http://www.berria.eus/legeinformazioa>)

© Creative Commons lizentzia

(<http://www.berria.eus/legeinformazioa#publizitatea>)

Cookieak

(<http://www.berria.eus/legeinformazioa#cookieak>)

Publizitatea (<http://www.berria.eus/publizitatea/>)

(<http://www.gipuzkoa.net>)



Gipuzkoako Foru Aldundia

berria taldea

berria

bidera zerbitzuak

www.euskalherriko pLaza.com

Mauka

BADOK

HITZA



Hamaika IRIEASIA

iragarkilaburrak.com



TALEA